

**UDALEKU IREKIETAN ETA AUZOLANDEGIETAN SAN
MARTIN AGIRRE IKASTETXEAREN ERABILERA ARAUTZEKO
HITZARMENA**

Bergaran, 2019ko maiatzaren 23an

BILDU DIRA

Alde batetik, Maria Elena Lete Garcia, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari izan da.

Bestetik, Jose Ramon Lasa Arana jauna, adinez nagusia, Bergaran, Boni Laskurain pasealekuan dagoen San Martin Agirre ikastetxeko zuzendaria, San Martin Agirre ikastetxearen izenean,

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo adierazi dute.

ADIERAZPENAK

2019ko Udaleku irekiak eta Auzolandegiak antolatzeko, Bergarako Udalak San Martin Agirre ikastetxeari bertako espazio batzuk erabiltzeko baimena eskatu dio.

Udaleku irekiak uztailearen 1ean hasi eta uztailearen 26ra arte izango dira goizeko 9:45etik 13:15era.

Auzolandegiak uztailearen 29an hasi eta abuztuaren 12an bukatuko dira.

Udalak Udalekuak Jardun euskara elkartearen bidez antolatu ditu, kontratatuko diren begirale guztiak Jardunek kontratatuko ditu.

Auzolandegietan lanean egongo den pertsonalaren kontratazioaz aldiz, Eusko Jaurlaritzara arduratuko da.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: UDALAREN BETEBEHARRAK.

Udalekuak eta Auzolandegiak direla eta, gertatutako kalteen (apurketak, desagerpenak,...) ordainketa bere gain hartuko du.

Udalekuak, Auzolandegiak eta hauen antolaketak irauten duten bitartean, udalekuetako eta auzolandegietako arduradunak udalarekin eta ikastetxeko zuzendaritza taldearekin harremanetan egongo dira. Eraikuntzan edozein kalte gertatuz gero, ikastetxeko ordezkariak jakinaraziko diete.

Udalekuetako eta Auzolandegietako parte-hartzaileek jasotako eta sortutako kalteengan, ez du San Martin Agirre ikastetxeak inolako erantzukizunik izango.

Bi programa hauek bukatutakoan programa hauek aurrera eramateko kontratatutako langileek instalazioak garbi utziko dituzte, aurkitu dituzten moduan.

BIGARRENA: SAN MARTIN AGIRRE IKASTETXEAREN BETEBEHARRAK.

Udalekuetarako San Martin Agirre ikastetxeak ondorengoak utziko ditu:

- Haur Hezkuntzako eraikinean: 10 gela (bi urteko ikasleen 3 gelak barne), gimnasioa, jangela eta patioa.
- Lehen Hezkuntzako eraikinean: 15 gela, laborategia, aretoa eta patioa.

Auzolandegietarako San Martin Agirre ikastetxeak ondorengoak utziko ditu:

- Haur Hezkuntzako eraikinean: bi urteko ikasleen bi gela, gimnasioa, dutxak, jangela eta sukaldea. Erabiltzaileek bai sukaldean bai dutxetan ur beroa beharko dute.

HIRUGARRENA: HITZARMENAREN IRAUPENA.

Hitzarmen honek 2019ko Udaleku irekietarako eta Auzolandegietarako balioko du, hauek bukatutakoan (eta hitzartutakoak betetakoan) sinatzaileek ez dute elkarrenganako inolako erantzukizunik izango.

Horrela jasota geratzeko, eta hitzartutakoarekin ados daudela eta bertan jasotakoa zintzo eta leial beteko dutela adierazteko, hitzarmen honen hiru kopia sinatu dituzte, hasieran aipatutako toki eta egunean.



Bergarako Alkatea
Maria Elena Lete Garcia



San Martin Agirre ikastetxeko
zuzendaria
Jose Ramon Lasa Arana